

MUNDU BIRIBILLA

NORUEGA'KO «SUPERMARKET» BATZUK GAINBEHERA

3.800.000 lagun, 324.000 kilometro koadratu, 2.500 kilometro Ipar'etik Hego'raino. Horra hor Noruega hozki aurkeztezko modu bat.

Noruega ezagutu duen bat, ordea, ezin ditek hontan geldi. Noruega olerkiaren aberri berbera baita. Ni neu, bederen, ez naiz aurkerakoan gauza izango malenkonia kutsu nabarmenik gabe Noruega'ri buruz ezere pentatzeko edo idatzeko.

Aspaldidanik somatzen nuen, hau bai, Knut Hamsun'en liburuetan eta Edward Grieg'en melodia hungarrietan, Noruega'n aurkituko nuela, joatekotan, ilunabarretako isiltasun geldi hori. Eta aurkitu egin nuen gainezka; eta, beste eskaldun batzuk bezela, iparralde horietarako joerak kilikatzen nau borlitzki. Euskal Herria'n ezagutu dugun amaigiroak argitasun epelera bultzatuko baikin-tuen gu, eta ez Mediterraneo'ko betetasun haragikietara.

Noruega'ko butzerrak ezagutu ondoren, gure inguruetan Izadia erdi-izadi besterik ez dala aitortu beharra dago; eta gure urrutietan bizi diran baserriarrik barkatienak, kale betean bizi dirala!

Gelto'lik pasa naiz ni, esate baterako, Oslo eta Bergen'en arteko bide erditsuan, mendi-mendian. Herrerria urrun hartantxe hil zan berriki Trigve Lie famatua aspaldian ONU'ko lehendakari izana. Igarotzerakoan Maiztasun hondararen ginan; eta eskualde menditsu garai haletan Gello'ko aberrian bertan lakuak hormaturik zeuden oraindik eta elurra inguru guzian nagusi. Egoraldia epela eta eguzkitsua izanagatik ere kaminoia elur lodian idekitako hildo hestu sakon bat besterik ez zan. Gure Lorraine edo Uztartotze hiri ondo-ko hauzo erosoak iruditzen zaizkit Noruega'ko herriska haien ondoan.

Utsazterean jakina danez eta «Gulf Stream» dalakoari esker, giro arsoz epelagoa da. Oslo'ko kaha ez bide da sekulan histen. Hiri ederra Oslo, Itsasoko kolkoak ugari eta ikusgarri, zureko etxeak eta hormigoiekoak alkarren lehian ugaltzen ari; baina, Belgika' eta Holanda'n bezela, familia-etxe-koak milaka hiriarren ondo inguru guzian. (Noruega'koak, noski, danak zurez eginak).

Kalarengatik beharbada, eta arrain-azokari darion usainarengatik eskierki, gureago atxematzen da Bergen'go hiria. Kai zaharreko

Hanse'ko etxeak erasten dute urrututasuna.

Telemark'eko bakardadetan baserri guziak dira zurezkoak; eta gauza bera baserri guzian ondoko ukullua eta bizitegia. Hirukote horiek oso tipiko eta desberdin egiten dute ikuspena.

Hunek guziak, alabainan, ez luke etorlearen bihotza inarrosiko. Fiordoek hunkitzen dute bihotza. Eta Noruega'z oroitzean, ikuskari bat dago gailen hura ezagutu duenarengan: fiordoak.

Noruega ez dago aldamean. Baina olerkiaren ahalmena pitzu edo indartu nahi duten eskaldun guziet, aholku ziur bat emango diet nik: aukera gertatzen zalearik, zalantzarik gabe fiordoan bakardadean elikatzen joan ditezela. Hardanger'ko eta Sogne'ko fiordoetara bereziki.

Posse'ko erroitz ikaragarrietan behera iritxi nintzan ni igaz Ejfiord eta Kinsarvik'a. Inoiz ez dut nere burua apalago eta ezteusago ikusi, eta Izadiaren edertatsun kupidagabea nabarmengo eta gaitzago Uxolok ehunka metrotan behera, arkaizt gogorak zut mila metrotako paretak osatuz, kresal usaina ezin sarkorrago aldean, itsas-gain geldi hura isplitu baten pareko, ontzi zuri-beltz hura fiordo-beso meharrean barrena urruntzen ari, gol eskeraga guzietan elurra zuri-zuri; eta isiltasun giro hura urratuz, urutiko uxolen zurrumuru jarralkian eten gabe ari, anitz antxeta eta kaluren oihua... Gustave Doré ren marrazkiek han dukete iturburu; eta horrengatik izan ziran Dante'ren dina.

Pake harrigarri hura ezagutu dutenek, ilunabar luzaker haletan pasean ibiltzeko zoriona ezagutu dutenek, ongi ulertzen naute: malenkoniaren Arcadia Noruega' n dago.

Bainan Izadiak Naturalezak, Noruega'n hunkitzen badu ere, noruegarrek berek ez gutxiago. Bergen'go inguruan, esate baterako, ugarteak milaka daude, kilometrotan zehar sakabanaturik, eta ontzien bidea oso zail eginez. Arkaiztuzko ugartetxo gogor askotan, zureko etxe bakar bat agiri da: ugarte hartan arrantzale-familia bat bizi da. Bat, eta ez bi. Handik bestehun metrotara, beste ugarte fimofo batean, beste familia bakar bat. Eta abar. Bergen'a joateko (itsasoa oso nahasia ez badago...)

ordubete behar da, edo ordu pare bat...

Fiordoetan, halere, harrigarriagoa da ikusten dana. Fiordoetan dau-denen herriak oso txikiak dira: Ulvik, Odda, Ardal, Norheimsund, edozein, herriska txiki-txikiak dira. Eta Ballestrand, esate baterako, Koskoarragoa baldin bada, estatuetek egin dute haundiago, Ballestrand bakantza-leku baita. Hori hala izanik ere, fiordoetako arkaiztuzko hormetan beretan zintzilikaturik, uretara jeisteko ere nondik joan ditekela ulertzen ez dalarik, etxekoak agertzen dira han hemenka...

Noruegatarrak, aspaldiko vikingoak bezela, itsastarrak izatea derriorezkoa da. Itsastarrak eta artistak. Kon-Tiki'ren eratzalea noruegatarrak izatea konprenitza da, Noruega'tarra itsasoa eta mendian murgildua bizi baita. Hamsun'en libururik ezagunenak, Nobel-Saria balio izan zionak, «Pan» du izena; eta Pan Izadiaren jaunkoia da.

Zer eman du Noruega'n mundu berriak? Aldakuntza haundiak, noski. Norainokoak diran zail da jakiten.

Baina Flugesand jaunak supermerkatei buruz berriki esan duena oso gogoangarria irudituz zait: «Ba dago ere —dio Flugesand'ek— eta nik nekatu gabe esaten dut behin eta berri, Noruega'ko pentsakera. Berriketa apur bat eginez erostea maite dugu guk. Giza-hartu-eman horri atxikitzea oso inportantea iruditzen zaigu: helburutzat daukagu alkarketa-eta horiek ez galtzea. Noruegatarren izakera da hunen kaka. Saltzailearen eta eroslearen arteko alkarkizketak lotura bat sortzen du gurean, eta lotura hori ez dugu inolaz ere galdu nahia...»

Hau da Flugesand jaunak eman duen azalpena. Gertaerak izutirik baititu ekonomikoak eta amerikarismoa bertutetzat dutenak: alegia super-merkatuak ez dira bate-rite aisa ari Noruega'n; jendeak ez ditu maite. Haundienetako batzuk hetsi ere behar izan dute; eta beste mordo bat koloka omen dago. Galtetxeago ordaindurik ere noruegatarrak albedo lagunari erostea anahiago du!

Nola ukatuko beraz fiordoz gain, ba dagoela Noruega'n zer miretsirik?

LARRESORO

Nazioarteko ixurtasuna

Gure gizarteko ekonomiaren egitura, ixurtasunak bear bearrezkoenak dira diruzko zorrak ordaintzeko. Zorraldeak garbitzeko, zurtzeko, ixurtasunak erabiltzen dira artean.

Ixurgai onena, orain, dirua dugu. Gure artean, dirua da lenengo malako ixurgai. Gaur egunean, paperzeo dirua dugu baiña leenago, urrea eta zillarra ziran nagusien, gure atrekoek txanpon oiek bakarrik erabiltzen zituzten.

Ondasunak eta eskubideak ere ixurgai bihurtu ditezke eta orregaitik, ondasunak edo eskubideak eukoi ezker, zorraldeak bear diran bezela garbitu ditezke. Baiña ixurgai onena beti izango da dirua eta diruakin bereala garbitzen dira zor denak.

Gaur, emen, nazioarteko ixurtasunak bakarrik aitatuko duguz, nazioarteko ixurtasun geroago eta neurri andiagotan erabiltzen diralako, geroago eta artean aundiagoak sortzen diralako nazioartean.

Artueman onetan, urrea da ixurgai onena eta ondoren dirua, baiña ez oraitio edozein diru, on bat baizik. Esate baterako: dolarra, markoa, libre, frankoa, etab. Aiek eta diru gogorrago izan, ixurtasun obeago izango du.

Leenago, urrea erabiltzen zan ixurgai bakarra bezela, baiña urrearen urritasunagaitik, orain diruak erabiltzen dira neurri andiagotan. Urrea eta aitatu dugozan diruak, denak naaste, kopuru bat biltzen dute eta kopuru ori diruzko ixurtasuna izango da nazioartean. Ona emen kopuru oien ager-garri bat:

Nazioak	DIRUZKO IXURTASUNAK (1.000 \$) (libeltzan)		Aldaketa %
	1958'an	1969	
Laterri Elkartuak	23.540	15.454	- 31'4
Inglatera	3.105	2.434	- 21'6
Frantzia	1.050	4.216	301'5
Alemania	5.879	8.646	47'1
Italia	2.184	5.186	137'4
Holanda	1.539	2.376	54'4
Sultza	2.063	3.077	49'1
Kanada	2.038	3.083	51'3
Japon	1.062	2.950	177'8
España	66	1.103	1.571'2
Besteak	16.090	25.975	61'4
Guziak	57.550	74.500	29'4

IXURTASUNAREN NEURRI EGOKIA

Ixurtasunak, nazio andienetan, Laterri Elkartuak eta Inglatera kendu ezker, geitu egin dira. Mundu guziko ixurtasun artu ezker ere bai. Geitze bat egon da, Laterri Elkartuak eta Inglatera kanpo.

Leengoan esan dugu azkenengo urte unetan Laterri Elkartuak galzorian daudela. Zori ori aldatzen ez ba-da, nazio orren agintaritzak malkalduko da. Orain, ia Alemaniak eta Frantziak, bien artean, Amerikak beste diru daukate eta ori egundo ere ez da gertatu.

Laterri Elkartuen diruzko galtzak, garrantzi aundiokoak dira eta galtze oiek ainbat eta ainbat burukomiñ dakarte agintariari. Esan leike, gaurko egunean, diruzko arazoan artean, galtze ori dala arazo andien sorburua. Gure iritzi, emen dago, bakearen korapiloa.

Eta gañera, ixurtasun ez bat nabari da. Ixurtasun eza dala gaur egunean, esan dugu, nazioartean eta ixurtasun ez ori ikusteko ona emen kopuru batzuk.

NAZIOARTEKO SALEROSTEAK	(1.000 \$)		Aldaketa (%)
	1958'an	1968'an	
Saltzeak eta erosteak	197.036	453.600	130'2

Au da, nazioarteko salerosten geimena 130'2 % izan da eta aldi berean, ixurtasunen geimena 28'6 % bakarrik. Argi eta garbi ikusten da ixurgai gelago bear dala zor guzitari erantzuteko.

Emen dao diruzko arazoan beste korapilo on bat. Ixurgaiak geitzea. Nola?

S. LARREA

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián


Benen baneko azlyak
Ongerrri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurratzeak

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan
etorriak.

ENTZUN!!!...Probintzi guziak!!!



ESKEINTZA BEREZIA "TRESILLO EKINTZA"

Erosi oraintxe zure erredizak...

Amuebladora COMERCIAL HISPANIA

MORAZA, 3 TA 14'AN — DONOSTIA'n — SAN MARCIAL, 12 — IRUN'en

IKUSI "ERREDIZEN ERAKUSTEGI AUNDI AU"
Igande ta Jaietan ere, irikia 5'etatik 7'arak arte

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten diru
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserriar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI